

LITURJIA BERRIA

Euskaltzaindia Euskalerriko apezpiku guztiei zuzendu zitzairen jakin zue-
nean Erroman liturjia berriaren legeak jarri zirala erriko izkuntzak ere aintzat
arturik. Aspaldiko denboretatik euskera erabillia izan da erlijio arazoetan eta
orretan oiñarria jarriarik oraingo lege berrietan ere gogoan artzeko eskatu
zitzaien. Aldakuntza egiten asi danean, 1965 urtearen asiera inguruan, ontzat
artu dala ikusi da.

ITZALDIAK BILBON RESURREZIO MARIA AZKUE ZANAREN GORAZARRETAN

Bizkaiko Kultura Batzarreak antolatuta iru itzaldi egin dira Bilbon Eus-
kaltzaindiko buruzagi ainbeste urtetan izan zan Azkue-n omenez. Bizkaiko
Diputazioaren Bibliotekan izan ziran.

Lendabizikoa 1965 martxoaren 30-ean Luis Mitxelena-k egin zuen. "Azkue
y la lexicografía vasca" artu zuen gaitzat. Programak onela zion: "Guión: Al-
cance y significación del **Diccionario vasco-español-francés**. Precursores y con-
tinuadores de Azkue. Acumulación de materiales y acumulación de errores.
Lexicografía y crítica textual. Lengua hablada y lengua escrita, textos y voca-
bularios. Léxico patrimonial y préstamos. La realidad de las palabras y sus
grados. El Patriarca Aitor y los Basajaunes. Investigación y crítica."

Bigarrena 1965 apirilaren 7-an Julio Caro Baroja-k. Programak zion:
"Guión: Recuerdos personales. Breve historia del folklore vasco. Azkue y sus
contemporáneos. Valor folklórico del diccionario. Observaciones acerca del
cancionero. La literatura popular del País Vasco y su importancia documen-
tal. Reflexiones en torno a la misma".

Irugarrena 1965 maiatzaren 3-an Antonio Tovar jaunak. "D. Resurrección
María de Azkue, gramático". Programak zion: "Azkue gramático. Análisis de la
Gramática euskara de 1891. Espíritu pesimista del joven Azkue. Academicismo
normativo. Regularización de la lengua. Las influencias en el joven Azkue: As-
tarloa, el P. Zabala, Campión. El problema de desarrollar una lengua literaria.
Entusiasmo por el euskera. El desarrollo del pensamiento lingüístico de Azkue.
La ciencia de su época. Las luchas y polémicas sobre el desarrollo del vascuen-
ce. La **Morfología vasca**, muestra de una gran madurez y de un examen comple-
tísimo de toda la documentación, tanto de la lengua popular como de la
literatura escrita. El ejemplo de Azkue y la necesidad de un estudio desapasionado y científico de la lengua. La autoridad en materia lingüística."

PELLO MARI OTAÑO-RI GORAZARREA ZIZURKILLEN

1965 maiatzaren 9-an Zizurkillen gorazarre bat egin zitzaion Pello Mari
Otaño zanari. Goizean lendabizi oroitarri bat agerian jarri zan bere jaiotetxean.

Meza nagusian Juan Maria Lekuona-k egin zuen sermoia. Zenbait bertsolari bertsotan saiatu zan. An ziran Uztapide, Basarri, Azpillaga, Lopategi, Lazkao-txiki, Lizaso, Lasarte eta Uranga. Bazkari bat egin zan eliza ondoko frontoian. Jendea erruz. Euskaltzaiñetatik Aita Antonio Zavala, Antonio Labayen eta Alfonso Irigoyen. Eliza aurrean Pello Mari Otaño-n estatua eder bat ipiñi da.

IRU EUSKALTZAIÑEN SARRERA ITZALDIEN ARGITARATZEA

Gure Herria eta **Egan**-en argitaratu diran ezker eztitugu berriz jartzen **Euskera**-n. Ona nola aurkitu litezkean:

Gure Herria, 1963, p. 203-223. "Haritschelhar euskalzain jaunaren mintzaldia". "René Lafon euskalzain jaunaren ihardespena".

Egan, 1964, p. 19-35. "Luzaideko otoitz ttipiak. Jose M. Satrustegi jaunak Euskalzaindian sartzeko, Luzaiden egin itzaldia". "Aingeru Irigaray euskalzain jaunaren iardespena".

Gure Herria, 1963, p. 323-339. "Euskalzaindian sartzeko mintzaldia" (P. Larzabal). "P. Lafitte-n ihardespena".

K- ETA Z-REN ARTEKO ALDAKUNTZAZ OHARPEN LABUR BAT

Gure eskualzain-kide jakintsun Luis Michelena jaunak handizki lagundu ditu eskual-ikertzaileak, hoienerako **Textos arcaicos vascos** eman dituelarik. Asko auzi eraikiko edo berrituko dauzku liburu eder horrek, eta ez nolana-hikoak.

Egun batto baizik ez nuke nahi aipatu, ez bəlinbada ere premia handi-handikoa.

Hogoi-ta hemezortzigarren orri-aldean ikusten dugu erderaz **Carcastillo** deitu tokiak eskuaraz **Zarrakaztelu** duela izena.

Zer gertatu da bada? **Car** erromana **zar** bilakatu othe da eskualdunen aho-mihitan?

Michelena jaunari kanore gutikoa zaio aldakuntza hori, eta **Serracastello** izen zaharra nahiago luke ezagutu **Zarrakaztelu**-ren aitatzat, **Carcastillo** oraino bizi dena baino.

Aitatasun horren ukatzeko ez dut nik ez biderik, ez gutziarik.

Bertzeak bertze nork daki **Carcastillo**-k ez duenetz bakarrik aspaldiko urtetan zedilla bat galdu? Lapurdin baditugu **Carcabal** batzu, **Zarzabal** batzuen legezko eta bidezko seme-alabak direnak, zedilla salbu.

Lerro labur hauietan nahi nuke ber-bera erakutsi eskuara aise lerratu dela zorbait aldiz **k**-tik **z**-rat eta ez dela hortaz harritzekorik.

Orok dakiguna: Kristoren ondoko hirugarren mende azkentsuraino, latinak zintzurraz ahoskatzen ohi zituen **Cicero**, **cecidi**, **cilices** eta holakoak, guk orai